

Min isila.

Bazen behin, 2022an, Mumaran, Nafarroa oso hegoaldean dagoen herri txiki, polit eta historiko batean. Historikoa zen, arabiarrek konkistatu eta Al Mohumarah izenera aldatu ziotelako eta bi hamarkadaren ondoren, nafarrek berreskuratu eta izen zaharra jarri bait zioten. Bertan bizi zen Jon Mendizabal alaia, eskuzabala eta lagunkoia, zen normalean Jon, baina azkenaldian zerbait desberdina gertatzen zitzaion. Jon, altueraz ertaina, gaztain koloreko ilea, azal argiduna eta begi urdinduna zen, eta ez zen oso gihartsua.

Astelehena zen, Jon betiko moduan, ikastolara joan zen, baina, burua ez zuen ikastolan beste zerbaitetan baizik. Ez zituen liburuak eraman, ezta etxekolanak egin eta gainera, oso triste zegoen eta normalean alai egoten zen. Horrez gain, ez zizkion bere lagun min Harkitzi margoak utzi. Ikastola amaitzean, zuzenean etxera joan zen, eta ez zen gelditu lagunekin, bere gauza gustukoena zela hau eta, aitzakia moduan jarri zuen etxeko lanak egitera zihoala, baina ez zuten etxeko lanik!

Horretaz kezkatutik, lagunak elkartu egin ziren.

- Jon oso arraro dago, ezta? -esan zuen Beñatek.
- Bai, oso arraro dago. -erantzun zion Markelek.
- Nik uste dut galdetu egin beharko geniokeela zer gertatzen zaion. -proposatu zuen Oinatzek.
- Ados, bihar galdetuko diogu. -esan zuen Peruk.

Hurrengo egunean, Harkaitzek Joni zer zitzaion galdetu zionean ez zitzaiola ezer gertatzen erantzun zion. Atsedenean, lagunak berriro elkartu ziren eta ikertu egin beharko erabaki zuten. Orduan txirrinak jo zuen eta klasera itzuli behar izan zuten.

Handik ordu batzutara, nola ikertu pentsatzen hasi ziren:

- Nire gurasoak denarekin konturatzen dira, galdetuko diet? -proposatu zuen Jokinek.
- Ados. -erantzun zion Peruk.
- Eta ikastolako zerbait bada? -galdetu zuen Harkaitzek.
- Bueno, galdetu egingo diet, baina bihar arte ez dira itzultzen Paris-tik. -esan zuen Jonek.

Handik bi egunera ikastolara bidean Jokinek kontatu zien bere gurasoak ez zirela ezertaz konturatu.

Ordu batzuk geroago, Harkaitz Jonen etxera joan zen Joni zer gertatzen zitzaion galdetzera. Jonen amak zabaldu zion atea eta sartzeko esan zion. Jonek bere logelan, oso gustura jaso zuen bere lagun minaren bisita.

Harkaitz Jonen ondoan eseri orduko Jonek hau kontatu zion:

- Larunbat gauean nire Alicanteko aitxitxa hil zen eta oso gaizki ari naiz pasatzen. -esan zion Jonek.
- Bai, konturatu gara arraro zaudela baina arazoa ezkutatzen ez duzu ezer lortuko etorri gurekin jolastera! -erantzun zion Harkaitzek.

Jon hainbeste denbora zihoan lagunekin jolastu gabe berehala baietz erantzun ziola.

Harkaitz eta Jon patioan agertu zirenerako, denak Jonen gainera bota ziren. Handik aurrera, lagun talde horretako norbaitek arazo bat zuenean beti eskatzen zuen laguntza eta lagunak laguntzen saiatzen ziren.

Bilbi